

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



## Euskaraldia aurkeztuko da gaur, eskolan

ASTIGARRAGA  
EUSKARALDIA

2



## Zerona berdindu du Hernanik, Real Unioneekin

ASTIGARRAGA-HERNANI  
FUTBOLA

7



## Literatura eta sorkuntza lanak, Batxilergoko ikasleen eskutik

HERNANI  
IKASLEEN TXOKOA

3-6



## Hodei Lujanbio goizuetarra bigarren, UZ Trailen


URUMEA  
ATLETISMOA

7

### AGENDA

**GAUR** 17:00 : Biler irekia, haurren aurkako indarkeriaz  
ASTIGARRAGA

**GAUR** 19:30 : 'Kontrako eztairik', literatura saioan  
ASTIGARRAGA



**GAUR** 19:30 : Kontzentrazioa, «auzia salatze»  
HERNANI

## Senegalerako, bilketa

HERNANI  
ELKARTASUNA

2

Nibiru edergintza zentroak eskola eta sendaketa materiala bilduko du martxoaren 21era arte, Senegaleko haurrei bidali ahal izateko. Era berean, larunbaterako hitzaldia antolatu du: Jerejef elkarteko kideak ariko dira hizketan, Senegal, Ginea, Gambia, Mauritania edo Maliko haur talibek bizi duten «bidegabekeria».

## Martxoak 8aren harira, seme-alaben sexu heziketari buruzko hitzaldia emango da gaur Txirrita ikastetxean

Katiluzar Guraso Elkarteak antolatuta, 16:30etan Txirrita eskolan hitzaldia izango da, seme-alaben sexu heziketan segurtasunez esku-hartzeko irizpideen inguruan. Ez da aste honetako ekitaldi bakarra izango. Ereñotzun bakarrik ez; Hernanin, Astigarragan, Aranon eta Goizuetan ere hainbat ekitaldi antolatu dira.

EREÑOTZU  
MARTXOAK 8

2

## Esther Lopez Erregina Koparen jabe, entrenatzaile

May Deco talde logroñoarra zuzentzen du, jokalaria izan bitartean marka ikaragarriak lortu ondoren, entrenatzaile lanetan ari den aurreneko urtean.

HERNANI  
BOLEIBOLA

8

[altzuetasagardotegia.com](http://altzuetasagardotegia.com)



**altzueta**  
HERNANI

Osinaga, 7. Hernani  
943 55 15 02



# Material bilketa Nibirun, Senegalgo haurrei bidaltzeko

Martxoaren 21era arte eskola eta sendaketa materiala bilduko da Nibiru edergintza zentroan. Larunbatean haur talibeen inguruko hitzaldia ere izango da.

HERNANI ELKARTASUNA

Izpizua kaleko Nibiru edergintza zentroan eskola eta sendaketa material bilketa jarri dute martxan, Senegalgo haurrei bidaltzeko. Bilketa martxoaren 21era arte egingo da.

Era berean, larunbat honetan, hilak 7, haur talibeen inguruko hitzaldia emango da bertan, 11:00etan.

**Bilketa, martxoaren 21era arte** Jasoko den materiala izango da eskolarakoa eta sendaketa-arakoa. Eskolarako, bilduko dira koadernoak, folioak, arkatzak, plastilina, pegamina, kanikak, pegatinak, borragomak, linterak edota txorroskiloak.

Sendaketarako materialari dagokionez, eskatu dituzte ur oxigenatua, betadine edo pomada antiseptikoa, hesgailu edo apositoak, gasak, esparatrapua, konpresak, erreduretarako pomada, ziztadetarako krema,



Haur talibek bizi duten «bidegabekeria» ezagutaraziko da hitzaldian.

eltxo uxagarria, suero fisiologikoa, ibuprofenoa, beherakoa gelditzeko, umeen sukarra jaisteko, umeentzako antibiotikoa, umeentzako antiinflamatorioa, eta umeentzako parasetamola.

## Haur talibeei buruz, Jerejef elkarte

Bilketaz gain, hitzaldia ere antolatu du Nibiru zentroak, larunbaterako, goizeko 11:00etan. Jerejef elkarte kideak gerturatuko dira, «haur talibeein gertatzen ari den bidegabekeria

ezagutarazteko».

Azaldu dutenez, «talibeak Senegal, Ginea, Gambia, Mauritania edo Malin jaiotako 4 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteak dira.

Euren gurasoek, gehienak baliabiderik gabeko nekazariak, Marabu Koraniar eskoletako maisuen zaintzapean uzten dituzte haur hauek. Lehen bizimodu duina eskaintzen zitzaien, baina egun, bazterkeria, probrezia, esplotazioa eta indarkeria jasaten dituzte». **K**

# Seme-alaben sexu hezkuntzaz gaur, Martxoaren 8ko egitarauaren bueltan

Ereñotzuko Katiluzar Guraso Elkarteak antolatu du, eta 16:30etan izango da, Txirritan. Datozen egunetan gehiago izango da, bailara osoan.

URUMEA MARTXOAK 8

Iganderako hainbat deialdi egin dira Urumea bailara osoan, Martxoaren 8a, Emakume Langileen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Baina motorrak berotzeko lanak lehendik hasi dira.

Gaur bertan, Ereñotzuko Katiluzar Guraso Elkarteak antolatuta, hitzaldia emango da Txirritan, 16:30etan: *Seme-alaben sexu hezkuntzan seguratsunez esku-hartzeko irizpideak*.

Ostegun eta ostiralean, berriz, ikasleekin brotze moreak egingo dituzte gurasoek, eskolan.

Bestalde, Olak Auzo Elkarteak dei egin du igandeko Hernaniko manifestazioarekin bat egiteko,

eta ondoren, 17:30etarako Amak musika emanaldia antolatu du Ereñotzuko frontoian, doan.

## Asteburuan, Astigarragan, Aranon eta Goizuetan

Deialdi gehiago ere egin dira. Astigarragan, larunbaetan 11:00etan Foru plazan elkartzeko zita jarri da, materiala prestatu eta dianarako entseiatzeko; zarata ateratzeko materiala eramateko eskatu dute. Igandean, berriz, 10:00etan egingo da diana feminista, eta 12:00etan, tailerra eta manifestu irakurketa. Ondoren, 14:00etan, bazkari autogestionatua izango da, eta Donostiara joango dira gero: 16:30etan, txipitxonian, eta 17:15etan, A2 autobusean.

Aranon, larunbatarekin *Denborak ahaztutakoak* helduentzako ipuin kontaketa izango dute aukeran 20:00etan, eta emakume afaria, gero. Goizuetan ere, *Munduko emakumeak* ipuin musikatua izango da 17:00etan, eta emakumeen otordu bat ere egingo da. Bestalde, martxan jarraitzen du *Zer da zuretzat emakumea\*?* erakusketa parte-hartzailean parte hartzeko epeak. Proposamenak [sastrakak@gmail.com](mailto:sastrakak@gmail.com) helbidera edo Goizuetako kafetegi edo estankora eraman daitezke.

## Hernanin, gaurtik hasita

Igandean, Hernaniko manifestazioa 13:00ean egingo da Plaza Berritik, eta bazkaria Atsegindegian, nork berea ekarrira. Donostiarako autobusa, berriz, 17:00etan hartuko da.

Bestalde, Gaztelekuan egunero landuko da gaia aste honetan. **K**

# Euskaraldia aurkeztuko da gaur, eskolako aretoan

Herritar guztiak gonbidatu ditu Udalak, 18:45etan egingo den ekitaldian parte hartzera. Fase eta epeen berri emango da.

ASTIGARRAGA EUSKARALDIA

Aurtengo Euskaraldia *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* lelopean egingo da. Hainbat fase eta epe izango ditu, eta baita berrikuntzaren bat edo beste ere.

Guztiaren berri gaur emango da, 18:45etan eskolako aretoan egingo den aurkezpen ekitaldian.

Udalak herritar guztiak gonbidatu ditu bertan parte hartzera.

## Talde eragilea osatuko da

Euskaraldiaren helburua, aurtentzen ere, «euskeraren erabilera haunditzea» izango da. Horretarako, azaroaren 20tik abenduaren 4ra ahobizi eta belarriprest izango dira protagonista, baina baita ariguneak ere. Era berean, Euskaraldia bera, 15 egunetara luzatuko da.

Berrikuntza eta fase horien berri emango da gaur, eta Euskaraldia landuko duen langilea aurkeztu eta herriko talde eragilea osatuko da. **K**

# Kontzentrazioa, auzia salatzen

HERNANI EZKER ABERTZALEA

Auzitegi Nazionalean deklaratzeko ari dira egun hauetan Ezker Abertzaleko hainbat militante, «independentismoa zapuzteko». Gaur, Juan Mari Olano hernaniarrak egin beharko du. Hau horrela, herritar talde batek kontzentrazioa deitu du 19:30etan Plaza Berrin, «auzi hau salatzen».

# Irakurketa Klubak saioa, gaur

ASTIGARRAGA LITERATURA

Uxue Alberdik idatzitako *Kontrako ezta* liburuari buruzko saioa gidatuko du gaur Isabel Etxeberriak, 19:30etan liburutegian.

# Haurren kontrako indarkeriaz, bilera

ASTIGARRAGA HARITUZ

Herritarrei irekitako bilera irekia deitu du gaurko Harituzek, 17:00etan kultur etxean, haurren aurkako indarkeria matxistaren aurka egiteko.

# Deialdia gaurko, odola emateko

HERNANI ODOL EMAILEAK

Odola eman eta organo donante egiteko aukera izango da gaur ambulatorioan, 18:00etatik 20:30ak arte. Otsailean 64 lagunek eman zuten odola, eta bi organo donante egin ziren.

# Sendotzarako topaketak, gaur hasita

HERNANI ELIZA

Ekainaren 6an hartu ahal izango dute sendotzako sakramentua, konfirmazioa, 18 urtetik gorako herritarrek. Horretarako, asteartero, gaur hasita, sendotza topaketak egingo dira Izpizua kaleko 3 zenbakiko apaiz-etxean.

**DOBERAK BEGIRALEA BEHAR DU** eguerditan gazteekin aritzeko

Bidali zure Curriculum Vitae-a, **martxoaren 4a** baino lehen:

[dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus)

**DOBERA** Euskara Elkarte Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

**ESKATZEN DA:**

- Euskara ondo menperatzea
- Begirale titulua edo hezkuntzarekin erlazionatutako formazioa
- Haur eta gazteekin esperientzia

**BALORATUKO DA:**

- Doberako bazkide izatea
- Hernaniarra izatea

**ESKAINIKO ZAIO:**

- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak
- Kontratu formala

Baldintzak betetzen dituztenen artean aukeraketak egin eta bat aukeratu da




IKASLEEN TXOKOA 86. ZENBAKIA

# Hernani BHI

**BATXILERGOA**





## Lili eta biok Ramon Saizarbitoria

Nobelako pertsonaia horiei guz-  
tiet, beste askori bezala, gerraz  
gogoratzea gogorra egiten zaie.  
Liliri, adibidez, bere aitona gerran  
egindakoak sentimenduak  
sorrarazten dizkio. Faustinoen  
lagun bati ere oraindik gerraz  
gogoratzea gogorra egiten zaio,  
izan ere, jada bukatu den gerta-

karia den arren, oraindik asko-  
ren bizitzan presente dagoen gai  
mingarria da.

Liliren aitona da min han-  
diena erakusten duenetakoa.  
Nahiz eta umea zenean gerta-  
kizun horrek ondoeza eragin,  
oraindik ere istorioa kontatzeak  
bere ongizatean eragina due-

Faustinoen jarrerak aldake-  
ta handia egingo du Lili gaztea  
ezagutzen duenez geroztik, izan  
ere honek jarduera desberdinak,  
planak eta bizipenak berriro ere  
bizitzera bultzatzen baitu. Gai-  
xotasuna aitzakiatzat hartzeaz  
uzi eta bizitzen hasten da. Fisi-  
koki ere osasuntsuago sentitzen  
da, biziago. Hemendik aurrera

Gerra garaiko jazarpenaren bes-  
te adibide bat, Roxaritoen kasua  
da. Falangistak beren baserrian  
bizi ziren, eta beren galdera guz-  
tiet erantzun behar izaten zien.  
Gainera, Julio Cesarrek Ro-  
xarito bortxatu zuen, Roxaritok  
Juan Aramendiarekin elkartuko  
zela uste zuenean. Ondoren, Ro-  
xarito etxera iritsi zenean, bere  
famiak merezia zuela esan  
zioten, probokatzen joateagatik.  
Garai hartako pentsamenduak,  
erruduna bortxatzailea izan  
beharrean, biktimari egokitzen  
zioten, probokatzen joateagatik.  
Roxarito haurdun zegoela, ihes  
egin zuen herritik eta seme bat  
izan zuen, Lorea eta Maiteren  
aita. Bere semeari ez zion inoiz

Faustino alaiago biziko da eta  
gaixotasuna alde batera utzi-  
ko du, tarte batzuetan honetaz  
ahaztuko da, eta gaixo dagoen  
Faustino izan beharrean Fausti-  
no soilik izango da. Horrez gain,  
sexurako gogoia edo jakinmina  
hein batean berpiztuko zaio. Os-  
pitaletik aldentzea erabakitzen  
du aldi baterako behintzat eta

hartuta zuen hitzordua bertan  
behera utzi du. Hobeto sentitzen  
den arren, Faustino berran  
zomorro bat izango balu bezala  
sentitzen du gaixotasuna bere  
barnean eta zomorroa desager-  
tu egiten da bera entretenitua  
dagoenean.

**Egilea: Jone Pastor**

esan zein zen bere benetako aita  
eta sinestarazi zion Juan Ara-  
mendia zela.

Istorioko hau bezalako beste  
hainbat daude Lili eta biok li-  
buruan. Adibidez, liburuko pro-  
tagonista 36ko Gerran bizi izan  
zen beste pertsona batekin topa-  
tzen da. Honek bere anaia galdu  
zuen gerran. Beste behin, gerra-  
ren ondorio lazarriak ikus di-  
tzakegu. Inoiz berriro ikusiko ez  
dituzten senideen (aita, aitona,  
seme, anai, neba,...) falta azal-  
tzen du, gerran erailak.

Istorioko honen bitartez ge-  
rrako gertakarien berri jakin  
dezakegu. Gerrak aldaketa uga-  
ri ekarri zizkien pertsonaiei.  
Gainera, gerrako bandoak alde

batera utzita, pertsonak daude,  
pertsona onak batean edo bes-  
tean. Juan Aramendia dugu ho-  
rren adibide; falangista izanda  
gerra uztea erabakitzen du, zen-  
tzugabekeria bat zelako.

Garaiko emakumearen egoe-  
rari buruzko kasuak ere ikus di-  
tzakegu: egoera tamalgarriak.  
Gainera, gerrak gaur egun ere  
eragina du. Liburuko adibidea:  
Lorea Cesarrekin, Julio Cesarren  
seme zaharrenekin, ezkondu-  
ta jarraitzen du ez duelako nahi  
honek bere aitari egia esatea.  
Hau da, Julio Cesarren semea  
dela eta ez Juan Aramendiare-  
na.

**Egilea: Uxue Aizkorbe**

la ikusten da, eta, gainera, ge-  
rra garaian egin zuenaz damu  
da oraindik. Horren seinale da  
Juan Aramendiak oparitutako  
liburua, asko estimatzen duena.

Faustino Iturbe gerran gerta-  
tutako ezbeharrez baliatzen da  
Cesar, Larramendiren Hiztegia  
salgai duen gizona eta bainu-

lariaren senarra, hunkitu eta  
hiztegia lortzeko, hau da, egia  
ez den istorio bat kontatzen dio  
hiztegiak bere familian izanda-  
ko garrantziari buruz.

Gainera, Lilik eta bere aito-  
nak Iturberi Otzetako istorioa  
zergatik kontatu zioten aipatzea  
beharrezkoa da, izan ere, Faus-

tinok gertakariari buruz nobela  
bat idatz zezan egin zuten. Ho-  
rretaz gain, idazlea nobela idaz-  
tera bultzatu zuten, eta lortu ere  
egin zuten.

**Egilea: Irati Ugarte**

Hasieratik idazleari gustatu  
zitzaien Liliren izena, eta libu-  
ruan zehar espresatuko du ne-  
rabeak ez duela bere adineko  
neska baten antzik edota dituen  
idea eta keinu txiki batzuk ez  
direla bere adinarekin erlazio-  
natzan, baizik eta helduagoa  
den emakume batekin. Gizon-  
aren hitzetan neska ederra da  
Lili eta gainera gustuko du bere  
espresatzeko era; berriro ere

ulertzeraz emanez neskak hel-  
dutasuna adierazten duela. Bere  
ekintzak irakurriz esan dezake-  
gu Lili oso pertsona irekia dela,  
baita independentea ere; horrek  
harremana errez sortzen eta  
aurrera eramaten du. Hala ere,  
izaera ireki horrek deseroso jar-  
tzen du gure idazlea.

Bi pertsonaia berezi hauen  
artean sortuko den erlazioa  
bat-batekoa izango da; ikusgai


dago hori, esate baterako: idaz-  
leak nerabeari esaten dienean  
sinetsi egingo diola, azken ho-  
nen inguruko helduek egin ez  
dutenean; gizonak Txikiren,  
bere txakurraren, inguruan hitz  
egiten dienean; nerabeak ere  
hamster bat hil zueneko kon-  
tatzen dienean eta Faustino la-  
saitzen dienean esanez ez dela  
pertsona gaiztoa —nahiz eta  
gurasoek hori esan alabari—;

edota psikologo ohiak suizidatu  
zen gaixoari buruz hitz egiten  
dionean, hori guztia ezagutu  
ziren goiz berean. Egia esan ho-  
rrelako harremanak bitxiak ez  
ezik harrigarriak ere badira eta  
gertatzen zailak ere bai.

Gora-behera guztiekin ere,  
azkenean lortzen duten harre-  
man bitxi eta osasuntsua, elkar  
laguntzen baitiote, aurrera era-  
maten dute eta nobela amaitzen

den modura denbora luzeko er-  
lazio baten sustraiak hazten ari  
direla ematen du; azken finean  
elkarren kezka baitute eta elka-  
rrekin ez daudenean Faustino  
Lilirengan pentsatzen du ba-  
tzuetan, betiere era osasuntsu  
baina bitxi horretan.

**Egilea: Ane Zaitegi**



## Etxeak eta hilobiak Bernardo Atxaga

Eliasen istorioa oso interesga-  
rria eta desberdina da, mutila  
mutu dagoelako eta inork ez da-  
kielako benetako arrazoia zein  
den. Martak, bikien amak, ha-  
ren kasua azaltzen die bikiei eta  
Elias ezagutzeko eta Eliasi la-

guntzeko prest daudela adieraz-  
ten dute. Mutilek berehala har-  
tzen dute konfiantza, izan ere,  
pertsona bakarrak baitira Elias  
hizketan has dadin saiatzen ez  
direnak. Horrela, haien arteko  
komunikazioa hitzik gabekoa  
bada ere, elkarrenganako maitasun  
handia sentitzen dute.

Mateo ere azaltzen da Elia-  
sen istorioan. Hasieran, Elias  
bakarrik sentitzen da, baina  
Mateo eta bera elkarri ezagu-  
tzerakoan dena aldatzen da.  
Lehendabizi lagun minak egin  
ziren, leku guztietara joaten zi-  
ren elkarrekin, batak besteari  
laguntzen zion eta adiskideen

arteko maitasuna sortu zen.  
Baina aurrerago, lagunarteko  
erlazio hori eraldatzen joan zen  
eta sentimendu berriak sortu zi-  
ren, eta beste urrats bat ematen,  
maitaleak bihurtuz.

Eliseoren istorioan lagunak  
oso espazio garrantzitsua bete-  
tzen dute bere bizitzan. Donato  
da beretzat garrantzitsuena;  
okindegian aurkitu zion lana eta  
oso lagun onak dira. Kuartelean  
ezagutu zuten elkar, eta egun  
horretatik aurrera egunero ibil-  
tzen dira elkarrekin hizketan.  
Cerso ere lagun garrantzitsua  
da Calocorekin batera. Celso  
oso adeitsua da, beti laguntze-

ko prest dago eta bere lagunak  
zaintzea gustatzen zaio oparien  
bidez. Caloco, berriz, urrunagoa  
da baina hala ere Eliseo eta gai-  
nerakoak maite ditu.

Eliseok maitale bat ere badu:  
Paca. Emakume honek senarra  
du, baina ez dago berataz mai-  
teminduta, Eliseoz baino. Oso  
ondo ulertzen dute elkar, haien  
gustuak partekatzen dituzte eta  
bata besteaz arduratzen da beti.  
Azkenean, haien maitasuna  
benetakoa denez, ezkondu egi-  
ten dira eta familia bat osatzen  
dute.

**Egilea: Enara Larburu**

## Maitasuna eta adiskidetasuna

Elias mutikoa mutu geratu da. Matias eta Luis bikiek ez dute inongo arazorik izango horrekin eta haren lagunak egingo dira berehala, haien laguntasuna hitz egitearen edo ez egitearen gaitetik egongo da. El Pardon dauden lau lagun artean gauza bera gertatzen da, berdin dio bakoitza nondik datorren edo haren iraganeko istorioa, denak egoera berean daude eta batera egiten dute aurrera. Horrez

gain, idazleak flash-backak ere erabiltzen ditu eta protagonisten umetako lagunak aurkezten ditu, pertsonaien oroitzapen gisa.

Bestalde, maitasunaren garrantzia ere oso nabaria da nobela guztian zehar eta pertsonaia guztiek bizitzen dute. Amodioa forma eta modu ezberdinetan agertzen da liburuan, eta Atxagak garbi uzten du ez dagoela mota bakarreko maitasuna. Adibide garbi bat Mateo eta Eliasen arteko maitasuna izango litzateke: haien arteko harrema-

na lagunartekoa zen hasieran, baina, denborak aurrera egin ahala, intimoagoa bihurtzen da eta elkarrekin pasatzen dituzte gauak. Hala ere, bikoteen maitasun harreman erromantikoa ez da aipatzen den bakarra. Aita-alaben arteko maitasuna ere azaltzen da, baita pertsona-txakurren/txoriaren (mikaren) artekoa edo pertsona baten eta bere buruaren artekoa.

Laburbilduz, nobela honek adiskidetasuna eta amodioari buruzko oso ideia garrantzitsuak eta beharrezkoak azal-

tzen ditu. Aurreiritziak alde batera utzi behar dira maitatzeko orduan edo lagunak egiteko orduan. Atxagak bi mutilen arteko maitasunaz hitz egiten digu, baita emakume izugarri lodi baten eta gizon argal baten artekoaz ere; senar-emazteak aurkezten ditu eta baita ezkutuko maitaleak ere. Adiskidetasuna denek behar duten gauza bat dela ere argi uzten du liburua. Gainera, sei ataletan banatua egoteak erraztu egiten du pasarteak eta ideiak ulertzea, eta nahiz eta istorioak guztiz des-

berdinak izan, idazleak lortzen du horiek guztiak era finean lortzea eta denetan amodioaz eta laguntasunaz era askotara hitz egitea. Bi gai hauek oso ohikoak dira literaturan eta liburu askok hitz egiten dute maitasunaz eta adiskidetasunaz, baina, hala eta guztiz ere, Atxagak lortzen du irakurleak harritzea.

**Egilea: Enara Larburu**



## Egunero hasten delako Ramon Saizarbitoria

### Maitasunari buruzko hainbat kontzeptu "Egunero hasten delako" eleberrian

XX. mendeko bigarren erdialde-ara arte, maitasuna oso zehazki definitua egon zen eta nobela honetan, aspaldidanik ezarritako ideia horiekin hautsi nahi da.

Alde batetik, kritika egiten dio maitasunaren heziketari. Txikitatik, guk libreki zerbaite maite dezagun utzi beharrean, gauza jakin batzuk maitatzen erakusten baitigute. Gauza batzuk maitatzea egokia den bitartean, beste batzuk maitatzea guztiz desegokia eta kaltegarria dela diote, gainera. Are gehiago, idazleak heziketa katolikoa bakarrik aipatzen duen arren, gizarateak jada definituak ditu maitatu behar diren eta ez diren zerrendak, eta halaxe erakusten zaigu guri jaio garen unetik.

Bigarrenik, garai hartara arte, benetako maitasuna ezkontzean onartzen zen eta oro har, ezkontzarik gabeko harremanik ez zen ametitzen, edota ez zen benetako maitasuna kontsideratzen; maitasuna Jau-naren hitzaren aurrean aitortutakoa zela sinesten baitzen. Eleberrian, ezkontzatik kanpo existitu daitekeen maitasunari

buruz ere egiten digu hitz.

Bestalde, erlijio katolikoan, ezkondu arte maitasuna ezin zen egin eta hortaz, maitasuna pertsona bakarrarekin egin genezake gure bizitzan zehar, ezkontzea, azken batean, betirako maitasuna zin egitea baita. Istorioan, Gisèlek ez du uste pertsona batekin maitasuna eginagatik amodiozko lotura bat sentitu behar denik bien artean, besterik gabe, erakarpen fisikoa izan daitekeela sinesten du. Gisèlek Mauriceri diotsu ohikoa dela mutilak neska batek birjintasunaren truke maitasuna eskatuko dielakoan egotea. Berak, ordea, ez diola maitasunik eskatuko ziurtatzen du. "Ohe batek ez ditu bi pertsona batzen!" (89. or) dio Gisèlek. Jean-Louisek ere, maitasuna eta sexua bereizi egin behar direla onartzen du, eta ginekologoarenean aurkitzen duen emakume hark ere bai.

Birjintasuna "galtzeari" garrantzi txikiagoa eman behar litzaikeela esaten da, ez baita hainbestearinokoa, eta autorearen ustez, bi pertsonaren arteko harremanean, baten gorputza ezin da izan bata besteari eskainiko dion gauzarik esanguratsuenak.

70. orrialdean, "maitasun prosaikoari" buruz dihardu narraztaileak. Hirugarren maila-

ko maitasuna ere deitzen dio. Azaleko maitasunari buruz mintzatzen da, ezkondu diren arren, barru-barruan maitatzen ez dutenen maitasuna. Euren maitasun hutsala besterik ulertzen ez dutenak, eta gainerakoek bihotz-bihotzez maitatzen badute, hainbesteko pasioa ulertzen ez dutenak. Zer maite behar den bakarrik ez, baina nola maitatu behar den ere inposatzen baita gizaratean; zenbaterainoko grinaz maitatu behar den; non dauden mugak.

Seme-alabak edukitzearen arrazoari buruz ere aritzen da idazlea liburuan. Askotan, seme-alabak edukitzea bi pertsonen elkar maite duten seinale dela baitirudi gizaratean autorearen aburuz. Baina, seme-alabak ez direla beti desiratutako zerbaite, ez eta benetako maitasunetik sortuak.

Bukatzeko, eleberrian, hitz egiterakoan, erakarpen fisikotik besterik sortu ez den sexua eta maitasunez sortu diren sexu-harremanak bereizi behar liratekeela adierazten da. Hau da, "larrua jo" oso inpersonala dela eta "maitasuna egin" politagoa. Narraztaileak dio berarekin maitasuna egin duten guztiak maite izan dituela, gehiago edo gutxiago.

**Egilea: Ainara Isasti**

Bakarrik dagoen neska gazte bat (itxura guztien arabera, Gisèle) geltokian ikusita, haren bizitzari buruz espekulatzen du irakasleak. Hortik, gazteei eskoletan ematen zaien hezkuntza eskas eta desegokiari buruz hitz egiten dio adiskideari geltokian bertan. Bizitzako arlo guztietan izan beharreko estiloaren garrantziaz ere mintzatzen da, hori gabe neskatok (Gisèle) galbidean jar daitezkeela ohartaraziz.

Moralaren krisi estrukturala gertatzen ari den garai batean ontasuna eta gaiztakeria, adimena eta ergeltasuna gizakien artean nola banatzen di-

ren hausnartzen du. Materiaren aldaezintasunarekin analogia eginez, adimen eta ontasun totala konstanteak direla planteatzen dio ezagutu berri duen beste irakasleari; horrela, adimen handiko batzuk izango badira, beste guztiak ergelak izan behar derrigor eta gehienak onak izatekoak bagara, derrigor oso gaiztoak diren bakan batzuk egongo dira. Berdin, moral sexualarekin: andregai birjinak izateko, sexu-grina asetuko duten emagalduek izan behar...

**Egilea: Lander Iza**

Bidaia horretan hiru ginekologo desberdin bisitatzen ditu, lehenengoak zuzen zuzenean, gauzak argi eta zorrotz esaten dizkio eta hori lehenago pentsatu behar zuela. Bizipen txarraren eta medikuaren ezezkoaren aurrean, ez etsizera erabakitzen du eta bere sabelean darman "munstroari" (Gisèlek berak dioen bezala) bakardadean aurre egitea. Beste ginekologo batengandik ere pasa da, aurrekoaren jarrera bera duena. Berak beharrezko egoeretan, hau da, ama arriskuan dagoenean, soilik abortua praktikatzen duela esan dio. Azken me-

dikuarengana doanean, ezer esan baino lehen errezatu eta jainkoari erantzuna baiezkota izan dadila eskatzen dio. (...).

Une horiek oso hotzak eta urrutikoak bezala transmititzen ditu narraztaileak, eta egoera honi Gisèlek hurbileko lagunaren edo eta bere amaren babesik gabe egiten dio aurre. Hasieran negarrari eusten dio, ondoren abortuak "sentimendu edo sentimendu falta" bat sorrazten dio eta azkenean negarra eusteari uzten dio, eta bere sentimenduak kanporatzen ditu.

Laburtuz, Gisèlek, bidaia honetan oztopo askorekin egin du

topo eta bakarrik, inoren laguntzarik gabe, horiei guztiei, aurre egin die. Hala ere, Gisèlek bizitzera aukeratzen du, liburua izenburuak esaten duen bezala, bizitza Egunero hasten delako, eta Gisèlek bere kabuz, bizitzako etapa berri bati ekiten dio.

**Egilea: Maria Ulazia**





Goizean goiz esnatu eta jai-ki. Dutzatu eta jantzi. Gosaldu eta hortzak garbitu. Ohea egin eta logela jaso. Zapatak jantzi. Lehenik bat eta gero bestea. Giltzak hartu eta atea itxia, krin kran. Ibiltzen hasi, tipi-tapa. Instituturaino, eguneko lehen ikasgairaino: Matematika, Historia, Latina, Euskara, Gaztelania, Biologia, Ingelesa, Kimika, Artearen historia, Marrazketa tekniko, Ekonomia, Grekoa, Fisika... Edozein delarik zazpi orduz liburu osatutako kartzelan giltzapeturik. Etxera buelta, aginduz osatutako beste kartzela batera. Bazkaldu eta hortzak garbitu. Etxeko lanak egin eta ikasi. Eskolaz kanpoko jardueretara: judoa, futbola, Ingelesa, arrauna, Yoga, Antzerkia, Egur-

-taila, saskibaloia, eskubaloia, Pintura, Pilates, Alemana... **Aginduetara**<sup>1</sup> buelta. Ikasi eta eskemak egin. Afaldu eta hortzak garbitu. Telesaia ikusi eta liburuak irakurri. Gabon! Ohera... Atsedena...

Nahi bai, baina ezin. Monotoniaz osatutako eguneko lehen eginda uzten zaituzten arren, ezin duzu lo egin, ezin duzu deskantsatu. Egunean zehar pentsatzeko ez duzun denborak gauean harrapatzen zaitu. Monotoniak, egunerokoak babes faltsuaren sentimendua ematen dizu, eta ohean sartzean... zer? Dena sentitzen duzu, eurria daukazularik **aurpegi zehar**<sup>2</sup>. **Tantaz**<sup>3</sup> beterik zaude eta bata bestearen atzetik doaz lurrera. Zenbatek galdetu dizute

nola zauden, zenbatek, zer sentitzen duzu gaur? Eta, zenbatek, besarkatu zaituzte? Pentsatu; hartu arnasa eta pentsatu. Zer sentitzen duzu orain? Badauka-za erantzuna?

Txikitan munstroetatik babesten zintuen izara horrek, orain ez dizu balio. Gaurko munstroa handiagoa da, sendoagoa; eta garrantzitsuena, ezin du inork geratu, ezta zuk ere. Gauero hartzen zaitu eta urdinez **marratzen**<sup>4</sup> zaitu. Ez daukazu inor alboan, edo dituzunak zeru **ertzean**<sup>5</sup> daudela dirudite, eta **kaltebera**<sup>6</sup> sentitzen zara. Ez duzu norengan konfiatu. Hortxe zaudete: gaua, iluntasuna eta zu, eta babesik eza.

**Egilea: Ane Zaitegi**

1. Aginduetara esaten denean etxera buelta irudikatzen da.

2. Eurria aurpegi zehar ego-teak negarrez ari dela adierazten digu.


3. Tantek malkoak irudikatzen dituzte.

4. Urdina tristurarekin lotu izan ohi da; testuinguru honetan tristuraz betetzen zaituela adierazi nahi du.

5. Zeru hertzean urruntasunaren isla da.

6. Kaltebera=sentibera, zaurgarri, ahul. (vulnerable)

## Arte lanak gara



Ispiluaren aurrean nago nire islari begira. Ez naiz, inondik inora ere, Miguel Angelen David edo Milo-ko Venusa bezalako arte lan idealizatu eta perfektu bat, hori badakit.

Gainera, denborarekin, nire azala uzkuritu egingo da eta nire

ilea, berriz, zuritu. Beraz, nire aurrean dudan pertsona hau egunen batean desagertu egingo da, arte lan bat ez bezala, hauek betirako irauten dute eta. Baina horiek berak ematen dio geure irudiari ikuspuntu berezi bat.

Erderazko esaera ospetsuak dioen bezala: "Todo lo bueno se acaba". Esaldi hau normalean momentuaz gozatu beharrek interpretatzen da. Zeren eta, gaur bihar baino gazteagoak eta

ederragoak gara.

Azken finean, arte lanak gara. Bakoitza bere erara zizelkatuta, bere historiarekin eta material desberdinez eginak. Ez ahaztu zu zeu zarella zeure buruarekin gustura egon behar duena, ez daudelako lan itsusiak, arte lanak interpretatzen ez dakiten pertsonak baizik.

**Egilea: Uxue Azkorbe**

## SUN WUKONG Tximuen erregearen kondaira



Sun Wukong, tximuen erregea, Txinako mitologiaren pertsonaia bat da. Harri hilezko batetik jaio zen, eta, handik gutxira, Txinako tximuak ezagutu eta haien errege bilakatu zen ur-jauzi atzeko gatzeluan. Urte oparoak

igaro bazituen ere, bere lagunak hiltzen joan ahala, tenplu budista batera joateko hautua egin zuen. Hori dela eta, tximuen erregeak gizakien hizkuntza eta ohiturak ikasi zituen.

Sun Wukong-ek hamaika gaitasun ditu: izugarriko indarra (9100kg altza ditzake), jauzi paregabea (54 000 km-ko jauzia), ilea kolorez aldatzea bere indarra handitzeko nahiz bere sentimenduak adierazteko, forma aldatzeko gaitasuna... Azken teknika hau ez du guztiz menperatzen; gauzak horrela, bere tximu isatsa agerian uzten du. Ahalmen horiez gain, laino

hegalaria du, eta bere tamaina alda dezakeen makila bat.

Mitoak dio Sun Wukong-ek bere makila eta lainoa lagun bere boterearen mugak ikusi eta handitzea lortu zuela lau itsasoetako dragoiekin borrokatu ostean. Jainkoak ziren lau dragoiak garaitu ostean, haiei armaturak kendu zizkien eta bere lagun tximuengana itzuli zen garaipena ospatzera. Hala ere, tximuen erregeak etsai ugari erdietsi zituen, eta hauek (deabruak eta dragoiak) Jade enperadorearekin hitz egitera joan ziren Sun Wukong-en jarrera basatia eta harropuzta salatzerak.

Kondaira hau irakurri ostean, tximuen erregea ez al zaitzue ezaguna egiten? Non ikusi duzu horrelako gaitasunak dituen pertsonaia bat? Hara nondik hainbat haur, gazte eta ez hain gazte izandakoen bizitzan garrantzi handia izan duen marrazki bizidunaren oinarria den Sun Wukong: Dragoi Bola, eta bertako protagonista den Son Goku. Gutxi dira Son Gokuren oinarrian dagoen mitoa ezagutzen dutenak. Hemen agerian geratzen da.

**Egilea: Manex Luzarraga**

## Zuhaitzak igo nahi ez dituen arraina



Albert Einsteinek behin esan zuen edonor izan daitekeela jonio bat, baina arrain bat epaitzen bada, zuhaitz batera igotzeko duen trebetasunagatik, hark bere bizitza osoan biziko da ergela dela sinetsita.

Gaur, egungo eskola epaitzen dugu. Testu honekin sormena eta indibidualtasuna hiltzea leporatzen diogu eskolari. Fa-

briketako langileak prestatzeko sortu zintuzten, eta horrek azaltzen du zergatik antolatzen dituzun ikasleak ilaran, modu ordenatuan, hitz egiteko eskua altxa zezaten, egunean 7 ordu sekula erabiliko ez duten informazioa ikasiz, bizitza bizitzeko denbora gabe eta hamarra ateratzeko lehiatuz, produktu baten kalitatea zehazten duen zentzua balitz bezala.

Garai hartan dena ezberdina zen, munduak aurrera egin du, eta modu sortzaile, berritzaile, kritiko eta independentean pentsatzen duen jendea behar dugu, konektatzeko gaitasuna duena. Medikuek bere paziente

guztiei botika bera errezetatuko balie jende asko gaixotu egingo litzateke, baina eskolan hori egunero ikus dezakegu. Irakasleek duten lana munduko lanik garrantzitsuenetakoa da, eta, hala ere, gaizki ordainduta daude. Irakasleek medikuek bezainbeste kobratu beharko lukete, medikuek batek bihotzeko kirurgia duen haur bati bizia salba diezaiokeelako, baina irakasle on batek haur horren burura irits daiteke. Irakasleak heroiak dira, eta kritika asko jasotzen, benetako arazoa aukera edo eskubide askorik gabeko sistema baterako lan egitea da.

Ez dut fede handirik eskolan,

baina pertsonengan fedea badut eta osasuna, autoak edo sare sozialak pertsonalizatu ahal badi-tugu, gauza bera egin dezakegu hezkuntza-sistemearekin, eguneratu eta aldatu, alferrikakoa baita, ez nukleo komun gehiago, horren ordez pertsona bakoitzaren esentzia lortu beharko genuke. Ikasleak biztanleriaren %20 baino ez diren bitartean, etorkizunean beste %80a izango dira. Lagunduko diegu errealitate egiten amestutako mundua, non arrainak ez diren behartuak egongo zuhaitzak igotzera.

**Egilea: Silvia Sagarna, 2. Batxilergoa**

## Alize Sagardui eta Araitz Legarreta azpitzapeldun, Nafar Jokoetan

Goizuetarrek 10-18 galdu zuten finala, Ultzamako Peñalver eta Goñiren kontra, alebinetan.

### URUMEA PELOTA

Txapela lortzetik gertu geratu dira, Nafarroako Kirol Jokoetan, Alize Sagardui eta Araitz Legarreta goizuetarra. Neska alebinen mailako finala jokatu zuten igandean, Leitzan; eta 10-18 galdu zuten, Ultzamako Peñalver eta Goñiren kontra. Azpitzapeldun izan dira, beraz.

Partidu garrantzitsua irabazi zuena, beste goizuetar bat izan zen: final laurdenean nagusitu zen Aimar Olaizola, Urrutikoe-txea lagun, Binakako Txapelketan, Artola eta Imazen kontra



Araitz Legarreta eta Alize Sagardui, Nafar Jokoetako azpitzapeldunen dominekin.

(22-17); eta semifinaletako ligaxkan ariko da, Laso-Albisu, Jaka-Zabaleta eta Ezkurdi-Martija bikoteekin batera.

### Zortzi hernaniarrek finalerako pasea, eskuz zein palaz

Hernaniarrek ere lortu dituzte emaitza onak, asteburuan. Palaz, Euskal Herriko Irekiko

finalera sailkatu dira Garazi eta Olatz, semifinala 30-21 irabazita Oberenari. Eta eskuz, Gipuzkoako Trinketeko finaletan izango dira Oier Alegria eta Mattin Arluziaga, Aimar Mujika eta Anartz Oiartzabal, eta Xabat Pagola eta Unai Alvarez, Hernaniko beste hiru bikoteri irabazi ondoren, semifinaletan. **K**

## Hernanik berdindu, eta bigarren jartzeko aukera paregabea galdu du

Ohorezko Erregional mailan 0-0 amaitu zuen, azken postuetan sailkatua dagoen Real Unionen kontra.

### ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA

Aukera ona utzi zuten pasatzen Hernaniko mutilek asteburuan, Real Unionen kontra. 0-0 berdindu zuten, azken postuetan dagoen taldearen aurka, eta Ohorezko Erregional mailako lehenengo postua lau puntutara dute orain, partidu bat gehiagorekin gainera. Bigarren postuak puntu bakarrera jarraitzen du, baina aukera bat galdu denaren sentsazioarekin amaitu zen larunbateko partidua.

Albiste ona Hernaniko nes-



Penaltia eskatu zen jokaldi honetan.

kek eman zuten. Jaun eta jabe izan ziren Sestao Riverren kontra hasieratik, eta 4-1 irabazi zuten Euskal Ligako partidua.

**Mundarrok, berriz ere irabazi** Bolada onean dagoen taldea Mundarro da. Astigarrarek 0-1 gainditu zuten Santo Tomas Li-

zeoa Berion. Zortzi partidu jarraian daramatzate astigarrarek galdu gabe eta zortzigarren jarri dira sailkapenean laugarren postutik bi puntura.

Partiduko gol bakarra Joxe Marik sartu zuen, bigarren zatian, iritsi hoge minuturen faltan. **K**

## Hodei Lujanbio bigarren berriro, UZ Trailen

Podiumera igo zen goizuetarra, berriro. Lilatoian, laugarren eta bosgarren izan ziren Aitziber Martin eta Hoki Guerrero.

### URUMEA ATLETISMOA

Bolada onari segida eman dio Hodei Lujanbio goizuetarrak, asteburu honetan, mendi lasterketen denboraldian. UZ Trailen aritu zen, Urretxu eta Zumarragako 23 kilometroko proban, eta bigarren sailkatu zen (2:03:53), Iñaki Olano altzotarraren atzetik (2:01:41).

Aiako Mendi Lasterketan ere aritu ziren bailarako korrikala-

riak (14,6 kilometro); 12 guztira. Nesketan, bosgarren izan zen Koro Astiz hernaniarra (1:31:32), eta bederatzigarren Itsaso Martinez astigartarra (1:40:14). Mutiletan, Anartz Mendizuri izan zen aurreneko hernaniarra (1:27:54), eta David Trallero lehenengo astigartarra (1:28:54).

**Lilatoian, bailarako 205 lagun** Errepidean, berriz, proba seinatua zuten igandean, Donostiako Lilatoiarekin. Bailarako 205 emakumek hartu zuten parte, eta Aitziber Martin (19:01) eta Hoki Guerrero (19:10) hernaniarrak izan ziren haietatik azkarrenak, laugarren eta bosgarren. Bailarakoen sailkapen osoa, larunbateko Kronikan. **K**

## Bi garaipen estu, eta porrota bakarra

### ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOAIA

Etxean aritu dira asteburuan, bailarako hiru talde nagusiak. Mutilen Gipuzkoako 1go mailan, garaipen estua bezain garrantzitsua lortu zuen Hernanik, Oiarzunen kontra (49-43), azkeneko laurdenean erabaki zen partidu batean. Mundarrok, berriz, ezin izan zion aurre egin, Donosti Dolphins laugarren sailkatuaren indarrari, eta 58-70 galdu zuen. Zazpi partiduren faltan, azkenaurreko postua garaipen bat atzetik dauka Mundarrok, eta hiru garaipeneko tarte lortu du Hernanik. Garaipena lortu zuena, espero baino estuago, Mundarroko nesken Gipuzkoako 2garren mailako taldea izan zen. Astigarrarek, sailkapeneko laugarren postuan, gogotik egin behar izan zuten lan, Lila Take azkenaurreko sailkatua menderatzeko (34-32).



Hernaniko jokalar bat, jaurtitzen.

## Arrozpide eta Ibon Miner, onenen pare

### URUMEA BOLA ETA TOKA

Zarautzen zeukaten igandean, Urumea bailarako bolari eta tokalari, Lehendakari Txapelketako bigarren tiraldia. Bolan, gizonekoetan onenen pare aritu ziren Miguel Arrozpide eta Ibon Miner, 42na brillarekin, eta Patxi Loreak, 41ekin. Xeferino eta Marcelino Agirre segurarrak, eta Pedro Agirre legazpiarra izan ziren onenak, 44rekin. Emakumezkoetan, berriz, atzeraxeago ibili ziren Rosa Santos astigartarra (31) eta Martxeli Kanflanka ereñotzuarra (27), 40 brila bota baitzituen Bea Unzue billabonarrak, eta 39 Goretzi Beloki zarautzarrak. Tokan, berriz, 13 jo zituen Antonio Amundarain irundarrak, eta Ibon Miner izan zen bailarako onena, 10 jota. Leandro Minerrek 6 jo zituen, Santosek 2, eta Kanflankak bakarra.

## Neska promesak laugarren, Erreterian

### HERNANI ARRAUNA

Erreterian zeukaten seigarren jardunaldia, Gipuzkoako Batel Ligan; eta bertan izan ziren Hernaniko sei batel. Neska promesek lortu zuten posturik onena, laugarren sailkatuta, 20 batelen artean.

### IRAGARKI MERKEAK

Astigarragako sagardotegi batean kamarer@ baten bila gabiltza. Urte osoko lana.

Email: landepartamendua@gmail.com

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

### EGURALDIA

#### GAUR

Prezipitazioa, hori bai, ez da atzo bezain ugaria izango da eta aterroneak luzeak izango dira. **Min.9° / Max.17°**

#### BIHAR

Giro nahasiarekin jarraituko dugu. Euria egingo du, eta zaparradak bereziki egunaren lehen partean espero dira. **Min.9° / Max.17°**

(euskalmet)

### TELEFONO ZENBAKIAK

**TAXIAK** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALITZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

### FARMAZIAK

**Eguez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauze: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**  
Goizueta: Nagusia 64 948 514353



# Esther Lopezek Erreginaren Kopa irabazi du entrenatzaile lanetan

Hernaniarrak May Deco Logroño taldea zuzentzen du eta 0-3 gainditu dute finalean Avanca Menorca. Superkopa ere irabazi zuten.

## HERNANI BOLEIBOLA

Esther Lopez hernaniarrak jokalaririk bezala marka bikainak ezarri zituen eta orain entrenatzaile modura, bere lehen urtean, ildo beretik jarraitzen du. Menorkan jokatu den Erregina Kopa irabazi zuen igandean berak zuzentzen duen taldearekin, May Deco Voleibol Logroño, finalean Avanca Menorca 0-3 gainditu eta gero.

Partidua hasierako puntuetatik kontrolpean izan zuen Logroño. Taldeko lehen entrenatzaile modura Esther Lopezek


jadanik Superkopa eta Erreginaren Kopa irabazi ditu eta ligan lehenengo postuan sailkatua dago Logroño. Ez litzateke harritzekoa izango aurten hiru titulu eskuratzen baditu Errioxako taldeak.

## Lautik lau garaipen kadete eta infantiletan

Asteburua borobila izan da Hernaniko taldeentzat. Bi talde nagusiek atsedena zuten eta kadete eta infantil mailetakoa lau taldeek jokatu zuten. Gainera, lautik lau garaipen lortu zituzten, maila oso onean jokatu.

Bigarren urteko kadeteek Fortuna 1 garaitu zuten, 0-3, eta liga erregularra amaitzeko jardunaldi baten faltan txapelketa lehiatzeko fasean sartuko dira ongi kokatuta. Txapelkun izateko aukerak dituzte. Lehenengo urtekoak ere 3-0 irabazi zuten Summa 1en kontra. Ahalik eta postu hoberenean geratzen saiatuko dira

Infantiletan liga erregularra garaipenekin amaitu dute bi taldeak. Infantil lehenengo urtekoak Summa 1 gainditu zuten eta bigarren amaitu dute liga erregularra. Bigarren urtekoak 1-3 irabazi zuten Tolosan, Laskorainen kontra, eta hirugarren amaitu dute. Orain azken fasea hasiko dute txapelketa erabakiko duten kanporaketekin. **K**



Lehenengo urteko kadeteek Summa 1 gainditu zuten larunbatean.

## ERRUGBIA

MUT. OHOREZKO MAILA	Burgos-Hernani	42-7
MUT. SUB 23	Burgos-Hernani	10-26
EMK. EUSKAL LIGA	Gernika-Landarbaso	31-10
MUT. INFANTIL SUB 16 (LAGUN.)	Hernani-Ei Salvador	34-19
MUT. INFANTIL SUB 16 (LAGUN.)	Hernani-Ei Salvador	35-45

## FUTBOLA

EMK. EUSKAL LIGA	Hernani-Sestao River	4-1
MUT. OHOREZKO ERREG.	Hernani-Real Union	0-0
MUT. GORENGOA	Santo Tomas-Mundarro	0-1
MUT. GORENGOA	Hernani-Deusto Donostia	0-4
EMK. LURRALDE MAILA	Hernani-Tolosa	0-2
MUT. 1. ERREGIONALAK	Mundarro-Pasaia	1-2
MUT. JUB. NAZIONAL LIGA	Hernani-Tolosa	1-0
MUT. OHOREZKO JUB.	Mundarro-Touring	3-1
MUT. OHOREZKO JUB.	Hondarribia-Hernani	2-2
MUT. 1. JUBENILAK	Mundarro-Sanpedrotarra	2-3
MUT. 1. JUBENILAK	Hernani-Sanse A	0-8
EMK. OHOR. KADETEAK	Zarautz-Hernani	2-1
MUT. OHOR. KADETEAK	Hernani-Mundarro	4-1
MUT. 1. KADETEAK	Usurbil-Hernani	4-2
NSK. KADETEAK	Usurbil-Mundarro	1-3
MUT. OHOR. INFANTILAK	Anaitasuna-Mundarro	4-2
MUT. OHOR. INFANTILAK	Internacional-Hernani	2-2
MUT. 1. INFANTILAK	Zarautz B-Hernani	1-8
MUT. 1. INFANTILAK	Sanse-Mundarro	1-1
MUT. INFANTIL TXIKIAK	Mundarro-Villabona	2-0
MUT. INFANTIL TXIKIAK	Hernani-Allerru	6-1

## WATERPOLOA

MUT. SENIORRAK	Donostia-Hernani	7-15
----------------	------------------	------

## SASKIBALOAIA

GIZ. SENIOR 1M.	Mundarro-Donosti Dolphins	55-70
GIZ. SENIOR 1M.	Hernani-Oiartzun	49-43
EMK. SENIOR 2M.	Mundarro-Take	34-32
GIZ. SENIOR 3M.	Zurrut-Mundarro	77-49
GIZ. SENIOR 3M.	Zarautz Zast-Hernani	56-42
JUNIOR NESKAK	Mundarro-Internacional	40-24
JUNIOR MUTILAK	Ama Guadalupekoa-Hernani	64-36
KADETE MUTILAK	Hernani-Ama Guadalupekoa	52-63
KADETE MUTILAK	Easo Arano-Mundarro	56-43
INFANTIL MUTILAK	Bergara Soraluze-Hernani	50-19
INFANTIL MUTILAK	Mundarro-Easo Ikasten	22-69

## ESKUBALOAIA

NSK. JUBENILAK	Mundarro-Mecalbe Eibar	33-22
NSK. JUBENILAK	Hernani-Laubide	12-33
MUT. JUBENILAK	Hernani-Tolosa	24-39
MUT. KADETEAK	Hernani-Aloñamendi	29-45
MUT. KADETEAK	Leizaran-Hernani	23-35
MUT. INFANTILAK	Hernani-Urola	18-27
MUT. INFANTILAK	Saieko-Hernani	24-17

## ERREMONTEA

1GO PARTIDUA	Aldabe-Arruarte/Goikoetxea V-Zubiri	40-30
2. PARTIDUA	Urriza-Barrenetxea IV/Juanenea-Ezkurra II-Ion	35-40
3. PARTIDUA	Seguroa-Azpiroz/Matxin III-Larrañaga	34-40

## BOLEIBOLA

NSK. KADETEAK 2	Fortuna 2-Hernani	0-3
NSK. KADETEAK 1	Hernani-Summa Aldapeta 1	3-0
NSK. INFANTILAK 2	Laskorain-Hernani	1-3
NSK. INFANTILAK 1	Hernani-Summa Aldapeta 1	3-0

## ESKU PELOTA-EZKER HORMA

NAGUSIAK	Ioritz Arrieta/Urbion	1-2
NAGUSIAK	Alde Zaharra/Arizmendi-Altuna	22-12
NAGUSIAK	Salaberria-Ortiz de Urbina/Oiarpe	22-13
JUBENILAK	Tolosa/Uitzi-Insausti II	22-10
JUBENILAK	Apaolaza-Oiartzabal/Intxurre	22-13
KADETEAK	Deskarga-Alegria/Intxurre	22-8
KADETEAK	Arabaolaza-Martin/Añorga	22-7
INFANTILAK	Alberdi-Otaño/Izurun	8-18
INFANTILAK	Moral-Urrutia/Orio	18-7
INFANTILAK	Pascual-Azpeitia/Eple	18-6
INFANTILAK	Gorrotxategi-Urdangarin/Pagazpe	18-9
INFANTILAK	Behar Zana/Isturbe-Elizazu	10-18
INFANTILAK	Gazteleku/Artola-Txinxurreta	18-7
ALEBINAK	Arretxe-Alberdi/Oiarpe	1-16
ALEBINAK	Gure Txeru/Etxebarria-Gaskon	12-16
TXAP. PRIBATUA HERRERA	Arabaolaza-Martin/Zumalde-Eizagirre	11-22
TXAP. PRIBATUA ORONOZ	Martin-Pascual/Antiguo	11-18
TXAP. PRIBATUA ELIZONDO	Uitzi-Astigarraga/Ibarluzea-Goikoetxea	18-14
TXAP. PRIBATUA DONOSTIA	Salaberria-Lazkoz/Arribillaga-Zalakain	21-22
TXAPELKETA NAGUSIA	Olaizola-Urrutikoetxea/Artola-Imaz	22-17

## ESKU PELOTA-TRINKETEA

KADETEAK	Alegria-Arluziaga/Manterola-Urdanpilleta	40-22
JUBENILAK	Insausti II-Lasa/Mujika-Oiartzabal	30-40
SENIOR 2.M.	Pagola-Alvarez/Arizmendi-Aldunberri	40-33

## PALA

EH IREKIA ELITEA	Murillo-Saez/Galdos-Arrieta	30-24
EH IREKIA JUBENILAK	Garazi-Olatz/Oberena	30-21
UDABERRI SARIA	Irati-Nahia-Joana/Zumaia	26-30